

ONARRI ESPEZIFIKOAK, URAREN EUSKAL AGENTZIako TEKNIKARI- ETA ARDURADUN-LANPOSTUETAN LANGILE LAN-KONTRATUDUN FINKO IZATEKO HAUTAKETA-PROZESUA ARAUTZEN DUTENAK, ALDI BATERAKO ENPLEGUA EGONKORTZEKO SALBUESPENEZKO DEIALDIAREN BIDEZ (MEREZIMENDU-LEHIAKETA).

1.– Deialdiko plazak.

Lanpostu hauek eskaintzen dira txanda irekian, sarbide orokorreko modalitatean, honela banatuta:

Lanpostua	Hizkuntza-eskakizuna	Derrigortasun-data	Gidabaimena	Plaza kopurua	Eranskina
EBALUAZIO ETA PLANGINTZA TEKNIKARIA	3	Bai	Gidabaimena	5	I.a
EBALUAZIO ETA PLANGINTZA TEKNIKARIA	3		Gidabaimena	3	I.a
EKONOMIA ETA AURREKONTU-KUDEAKETAKO TEKNIKARIA	3	Bai		1	II.a
FORMAZIO ETA SENTSIBILIZAZIO TEKNIKARIA	3		Gidabaimena	1	III.a
GEOGRAFIA-INFORMAZIOKO SISTEMEN TEKNIKARIA	3		Gidabaimena	1	IV.a
ISURKETA TEKNIKARIA	3	Bai	Gidabaimena	1	V.a
ISURKETA TEKNIKARIA	3		Gidabaimena	3	V.a
JABARI PUBLIKOA KUDEATZEKO TEKNIKARIA	3		Gidabaimena	3	VI.a
JABARI PUBLIKOA KUDEATZEKO TEKNIKARIA	3	Bai	Gidabaimena	2	VI.a
KOMUNIKAZIO TEKNIKARIA	4	Bai		1	VII.a
LAN HIDRAULIKOEN ETA LEHENERATZE JARDUEREN TEKNIKARIA	3	Bai	Gidabaimena	1	VIII.a
LAN HIDRAULIKOEN ETA LEHENERATZE JARDUEREN TEKNIKARIA	3		Gidabaimena	3	VIII.a
LAN BAIMENEN TEKNIKARIA	3		Gidabaimena	3	IX.a
LAN BAIMENEN TEKNIKARIA	3	Bai	Gidabaimena	5	IX.a
NORMALIZAZIO ETA ITZULPENeko TEKNIKARIA	4TP			1	X.a
PERTSONALEKO TEKNIKARIA	3	Bai		1	XI.a
SARE ETA SISTEMA INFORMATIKOEN TEKNIKARIA	3	Bai		1	XII.a
UR MASEN JARRAIPENeko TEKNIKARIA	3	Bai	Gidabaimena	1	XIII.a
URAREN ZERBITZU ETA ERABILEREN TEKNIKARIA	3	Bai	Gidabaimena	1	XIV.a
ZERBITZU OROKORREN ARDURADUNA	3	Bai		1	XV.a
LABORATEGI ARLOKO ARDURADUNA	3			1	XVI.a
KOMUNIKAZIO ARDURADUNA	4	Bai		1	XVII.a
JABARI PUBLIKOA LEHENERATU ETA ZAIATZEKO JARDUEREN ETA LANEN-ARLOKO ARDURADUNA	3		Gidabaimena	1	XVIII.a
ISURKETA ARLOKO ARDURADUNA	3	Bai	Gidabaimena	1	XIX.a
IKUSKARITZA ARDURADUNA	3	Bai	Gidabaimena	1	XX.a

2.- Eskabideak aurkeztea.

Oinarri hauek Agentziaren web-orrian (<http://www.uragentzia.euskadi.eus>) eta Campo y Ochandiano (www.campo-ochandiano.com) web-orrian daude eskuragai.

2.1.- Eskabideak aurkezteko epea.

Eskabideak aurkezteko epea 2023ko martxoaren 1etik 2023ko martxoaren 28ko 14:00ak artekoa izango da.

2.2.- Aurkezteko modua

Hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskaerak Campo y Ochandiano (www.campo-ochandiano.com) web-orrian baino ez da aurkeztuko.

3.– Parte hartzeko betekizunak.

3.1. – Plazak eskuratu nahi dituztenek oinarri orokorren 5 apartatuan ezarritako betekizun orokorrak bete behar dituzte.

3.2. – Deialdi honetako prozesu bakoitzean izena emateko tasa 23,49 euro da.

3.3. – Oinarri orokorretako 5.1.e) apartatuan xedatutakoaren arabera, oinarri hauen xede diren lanpostuetan sartzeko eskatzen diren titulazioak deialdi honen xede den lanpostu bakoitzari dagokion eranskinean zehazten dira.

4.– Lanpostuak esleitzeko betekizun espezifikoak.

4.1. – Deialdi honetako lanpostuetan, euskararen 3. hizkuntza-eskakizuna edo 4. hizkuntza-eskakizuna (T.G.) izatea betekizun izan daiteke lanpostua betetzeko. Euskara jakitea betekizuna da derrigortasun-data igarota daukaten lanpostuetan.

4.2. – Era berean, zenbait teknikari- eta arduradun-lanpostuk, lanpostu bakoitzari dagokion eranskinean xedatutakoaren arabera, berariazko betekizun dute B gidabaimena edukitzea. Merezimenduak alegatzeko izapidetan deklaratu beharko da.

5.– Hautaketa-prozesua.

5.1. – Lehiaketa izango da hautatzeko sistema, eta, prozesuaren kalifikazioa zehazteko, baremo honen arabera emandako puntuak batuko dira:

a) Esperientzia orokorra.

Esperientzia orokortzat hartzen da edozein administrazio publikotan emandako zerbitzuak – barnean direla Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra eta haren organismo autonomoak– eta organismo autonomoetan edo zuzenbide pribatuko erakunde publikoetan emandakoak, lanpostu bakoitzari dagokion eranskinean zehaztutakoaren arabera, eta berdin dela nolakoak diren zerbitzuok, funtzionario-harremanetakoak edo lan-kontratuko harremanetakoak.

Esperientzia hori, gehienez ere, 15 punturekin balioetsiko da. Zenbaketa egiteko, eskatutako betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

b) Esperientzia espezifikoa.

Berriaz baloratuko dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, Uraren Euskal Agentzian emandako zerbitzuak; lanpostu bakoitzari dagokion eranskinean zehaztuko dira zerbitzu horiek.

Esperientzia hori, gehienez ere, 70 punturekin balioetsiko da. Kasu guztietan, esperientzia-mota bakoitzerako eskatzen diren betekizunak betetzen dituzten azken 15 urteetako lan-aldiak batuko dira, eta, batu ondoren, hilabetetik beherako zatikiak kenduko dira. Horretarako, 30 eguneko multzoa hartuko da hilabetetzat.

- c) Unibertsitateko titulu ofizialak ere baloratuko dira, baldin eta eragin zuzena eta espezifikoa badute deialdiko plazaren eginkizunak betetzeko; gehienez ere 12 puntu emango dira atal honetan, honela:
- (i) Deialdirako sarbidea eman duen titulua ez den beste titulu ofizial bat bada eta titulazio-baldintza espezifikoetan sartuta badago: 6 puntu, titulu bakoitzeko.
 - (ii) Doktoretza: 8 puntu, titulu bakoitzeko.
 - (iii) Bestelako unibertsitate-diplomak eta -masterrak.
 - (1) 250 ordu edo gehiagokoak eta 600 ordu baino gutxiagokoak badira: 4 puntu, titulu bakoitzeko.
 - (2) 600 ordu edo gehiagokoak badira: 6 puntu, titulu bakoitzeko.

Unibertsitate-ikasketa bereko hainbat ziklo gainditu izana ziurtatzen duenari horien artetik maila goreneko zikloaren titulua besterik ez zaio baloratuko.

Ez da baloratuko gradu-titulua, baldin eta ikasketa berberen unibertsitate-titulua dutenei (diploma edo lizentzia, ingeniari-titulu, ingeniari-titulu teknikoa, arkitektura edo arkitektura teknikoa) zuzendutako egokitzapen-ikastaro baten bidez lortu bada. Sarbidea graduarekin (edo ingeniari-titulu teknikoarekin) bada, lanbide arautuak gaitzen dituzten masterrak ez dira merezimendu gisa zenbatuko, baizik eta sartzeko titulazio gisa.

- d) Hizkuntzak. Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko mailako ingelesa, frantsesa eta alemana baloratuko dira. Gehienez 3 puntu lortu ahal izango dira, baremo honen arabera:
- C1 maila edo handiagoa: 3 puntu hizkuntza bakoitzeko.
 - B2 maila: 2 puntu hizkuntza bakoitzeko.
 - B1 maila: 1 puntu hizkuntza bakoitzeko.

Honako xedapen hauetan maila eta hizkuntza bakoitzerako jasotako titulu eta ziurtagiriak bakarrik baloratuko dira: ekainaren 30eko 117/2015 Dekretuaren eranskinean jasotakoak (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren organismo autonomoetako lanpostuen hautatze- eta hornitze-prozesuetarako tituluen eta hizkuntza-ziurtagirien baliokidetasunari buruzkoa da) eta abenduaren 22ko 1041/2017 Errege Dekretuan jasotakoak (zenbait ikasketa planetan araututako araubide bereziko hizkuntza-ikasketen eta errege-dekretu honetakoen arteko baliokidetzak oinarritzko izaeraz ezartzen ditu).

- e) Euskara jakitea.

Euskara jakitea hizkuntza-eskakizunek derrigortasun-data igarota ez dutelako betekizun gisa eskatzen ez den lanpostuetan bakarrik baloratuko da, baremo honen arabera:

- 1. hizkuntza-eskakizuna: 6 puntu.
- 2. hizkuntza-eskakizuna: 9 puntu.
- 3. edo 4. hizkuntza-eskakizuna: 11 puntu.

5.2– Lehenetsunaren klausula aplikatzea. Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 27.2 artikulua betetze aldera, ez da aplikatuko artikulua horretan aurreikusitako berdinketa hausteko klausula, emakumeak ez baitaude gutxiegi ordezkaturik lanpostu horiei dagozkien kategorietan, eta ez zaie lehenetsunetik emango.

6.- Lan-poltsak.

Hauek osatuko dute oinarri hauen eranskinetan zehaztutako lanpostu bakoitzari dagokion lan-poltsa:

6.a. Prozesu osoan gutxienez 20 puntu lortzen dituzten langileak.

6.b. Esperientzia espezifikoaren atalean gutxienez 5 puntu lortzen dituzten langileak.

6.c. Uraren Euskal Agentziaren lanpostu bakoitzari dagozkion aurreko prozesuetako lan-poltsako langileak; horrenbestez, prozesu horretatik ateratzen den lan-poltsa aurrekoa ordeztuko du. Aurreko prozesuetako lan-poltsa dauden langileak lan-poltsa hau osatuko duten langileen atzetik geratuko dira, zero punturekin. Lan-poltsak 5 urteko iraupena izango du, argitaratzen denetik hasita.

I. Eranskina: Ebaluazio eta plangintza teknikaria

1. Sartzeko titulazioak:

- Ingurumen Zientzietako lizentzia
- Ingeniaritza Kimikoa
- Mendi Ingeniaritza
- Industria Ingeniaritza
- Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritza
- Ingeniaritza Agronomoa
- Meatzeetako Ingeniaritza
- Kimikako lizentzia
- Geologiako lizentzia
- Biologiako lizentzia
- Geografiako lizentzia
- Obra publikoetako I.T.
- Industriako I.T.
- Basozaintzako I.T.
- Kimikako I.T.
- Nekazaritzako I.T.
- Topografiako I.T.
- Meatzetako I.T.

2. Lanpostuaren xede orokorra

Plan hidrológicoen prestaketan laguntzea. Halaber, planen, programen eta proiektuen eta plangintza hidrológicoari buruzko dokumentuen eta helburuen arteko bateragarritasunari buruzko ebaluazio-txostenak eta jabari publiko hidraulikoan eta itsasoko-lehorrekoan duten eraginari buruzkoak egitea.

3. Eginkizun orokorrak.

- Jarduera-esparruko kontratuen exekuzioa zuzentzea eta gainbegiratzea.
- Plangintza eta ebaluazio hidrológikoko planak eta programak kudeatzea
- Plangintza eta ebaluazio hidrológikoko ebaluazio-txostenak egitea
- Plangintza eta ebaluazio hidrológikoko jarduerak kontrolatzea
- Plangintza eta ebaluazio hidrológikoko espedienteak kudeatzea
- Plangintza eta ebaluazio hidrológikoko planak eta programak egitea
- Plangintza eta ebaluazio hidrológikoko jarraipena egitea

4. Esperientziaren baremazioa

a) Esperientzia orokorra.

Gehienez ere 15 puntu emango dira edozein administrazio publikotan ebaluazio eta plangintza hidrológicoaren eremuan emandako zerbitzuengatik, oinarri espezifikoaren 5.a) puntuaren ezarritakoaren arabera, behar bezala egiaztatzen badira; ebaluaziotzat hartzen da planak, programak eta proiektuak plangintza hidrológikoko helburu eta agiriekin bateragarriak diren aztertzea eta horri buruzko txostena egitea, eta plan, programa eta proiektu horiek jabari publiko hidraulikoan eta itsasoko-lehorrekoan eraginik duen aztertzea. Baremo honi jarraituko zaio:

- 0,084 puntu emango dira, ebaluazio eta plangintza hidrológicoaren eremuko arduradun-edo teknikari-lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko.

b) Esperientzia espezifikoa.

Gehienez ere 70 puntu emango dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, Uraren Euskal Agentzian emandako zerbitzuengatik, behar bezala egiaztatzen badira; baremo honi jarraituko zaio:

- 0,292 puntu emango dira, ebaluazio- eta plangintza-arduradunaren edo -teknikariaren lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko. 0,584 puntu emango dira, deialdi honen aurreko 5 urteetan ebaluazio- eta plangintza-teknikariaren lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko.

II. Eranskina: Ekonomia eta aurrekontu kudeaketako teknikaria

1. Sartzeko titulazioak:

- Ekonomiako lizentzia
- Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritzako lizentzia
- Enpresa Zientzietako diploma

2. Lanpostuaren xede orokorra

Agentziaren arlo ekonomiko administratiboa kudeatzea, zuzenbide pribatuko erakunde publikoa den aldetik, agentziak dituen berezitasun teknikoak eta arauemaileak kontuan hartuta.

3. Eginkizun orokorrak.

- Agentziaren jarduera-eremuko lan-zentroen jarduketak koordinatzea.
- Irizpideak proposatzea, dagokion jarduketa-eremuan.
- Aurrekontu-proposamenak egitea.
- Ekonomia eta administrazioaren arloko kontsultei erantzutea.
- Ekonomia eta administrazioaren arloko planak kudeatzea.
- Ekonomia eta administrazioaren arloko jardueren ebaluazio-txostenak egitea.
- Ekonomia eta administrazio arloko espedienteak izapidetzea.
- Ekonomia eta administrazio arloko jardueren jarraipena egitea.
- Ekonomia eta administrazio arloko azterlanak egitea.

4. Esperientziaren baremazioa

a) Esperientzia orokorra.

Gehenez ere 15 puntu emango dira edozein administrazio publikotan ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketaren eremuan –Kontabilitate Plan Orokorraren esparruan– emandako zerbitzuengatik, oinarri espezifikoen 5.a) puntuan ezarritakoaren arabera, behar bezala egiaztatzen badira; baremo honi jarraituko zaio:

– 0,084 puntu emango dira, ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketaren eremuko arduradun-edo teknikari-lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko.

b) Esperientzia espezifikoa.

Gehenez ere 70 puntu emango dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, Uraren Euskal Agentzian emandako zerbitzuengatik, behar bezala egiaztatzen badira; baremo honi jarraituko zaio:

– 0,292 puntu emango dira, ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketaren eremuko arduradun-edo teknikari-lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko. 0,584 puntu emango dira, deialdi honen aurreko 5 urteetan ekonomia- eta aurrekontu-kudeaketaren eremuko teknikari-lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko.

III. Eranskina: Formazio eta sentsibilizazio teknikaria

1. Sartzeko titulazioak:

- Ingurumen Zientzietako lizentzia
- Ingeniaritza Kimikoa
- Mendi Ingeniaritza
- Industria Ingeniaritza
- Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritza
- Ingeniaritza Agronomoa
- Kimikako lizentzia
- Geologiako lizentzia
- Biologiako lizentzia
- Geografiako lizentzia
- Obra publikoetako I.T.
- Industriako I.T.
- Basozaintzako I.T.
- Kimikako I.T.
- Nekazaritzako I.T.
- Topografiako I.T.

2. Lanpostuaren xede orokorra

Uren eta ekosistema urtarren arloko prestakuntza, sentsibilizazioa eta kontzientziazioa sustatzea, eta Uraren Esparru Zuzentzarauaren printzipioak eta irizpideak ezagutaraztea.

3. Eginkizun orokorrak.

- Jarduera-esparruko kontratuen exekuzioa zuzentzea eta gainbegiratzea.
- Argitalpenak prestatzea
- Prestakuntza- eta dibulgazio-programak kudeatzea
- Argitalpenak kudeatzea
- Planak eta programak kudeatzea.
- Erakunde arteko jarduerak koordinatzea
- Kontsultei erantzutea

- Jarduera informatiboak kudeatzea

4. Esperientziaren baremazioa

a) Esperientzia orokorra.

Gehenez ere 15 puntu emango dira edozein administrazio publikotan formazio eta sentsibilizazio hidrológicoaren eremuan (zehazki, ekosistema urtarren eta uraren erabilera egokiaren aldeko errespetua sendotzea eta haiei balioa ematea) emandako zerbitzuengatik, oinarri espezifikoan 5.a) puntuak ezarritakoaren arabera, behar bezala egiaztatzen badira; baremo honi jarraituko zaio:

– 0,084 puntu emango dira, formazio eta sentsibilizazio hidrológicoaren eremuko arduradun-edo teknikari-lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko.

b) Esperientzia espezifikoa.

Gehenez ere 70 puntu emango dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, Uraren Euskal Agentzian emandako zerbitzuengatik, behar bezala egiaztatzen badira; baremo honi jarraituko zaio:

–0,292 puntu emango dira, formazio eta sentsibilizazio hidrológicoaren eremuko teknikari-lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko. 0,584 puntu emango dira, deialdi honen aurreko 5 urteetan formazio eta sentsibilizazio hidrológicoaren eremuko teknikari-lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko.

IV. Eranskina: Geografia-informazioko sistemen teknikaria

1. Sartzeko titulazioak:

- Ingurumen Zientzietako lizentzia
- Ingeniaritza Kimikoa
- Mendi Ingeniaritza
- Industria Ingeniaritza
- Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritza
- Ingeniaritza Agronomoa
- Kimikako lizentzia
- Geologiako lizentzia
- Biologiako lizentzia
- Geografiako lizentzia
- Geodesia eta Kartografiako Ingeniaritza
- Obra Publikoetako I.T.
- Industriako I.T.
- Basozaintzako I.T.
- Kimikako I.T.
- Nekazaritzako I.T.
- Topografiako I.T.

2. Lanpostuaren xede orokorra

Kartografia hidrologikoa egitea eta geografia-informazioko sistemak kudeatzea.

3. Eginkizun orokorrak.

- Jarduera-esparruko kontratuen exekuzioa zuzentzea eta gainbegiratzea.
- Planak eta programak kudeatzea.
- Kartografiako eta hidrologiako aplikazioak kudeatzea.
- Dokumentazio kartografikoa eta hidrologikoa lantzea.
- Kartografiako eta hidrologiako kontsultei erantzutea.

- Dagokion jardun-eremuko ebaluazio-txostenak egitea.
- Geografia-informazioko sistemak kudeatzea

4. Esperientziaren baremazioa

a) Esperientzia orokorra.

Gehienez ere 15 puntu emango dira edozein administrazio publikotan geografia-informazioko sistemen eremuan emandako zerbitzuengatik, oinarri espezifikoaren 5.a) puntuaren ezarritakoaren arabera, behar bezala egiaztatzen badira; baremo honi jarraituko zaio:

- 0,084 puntu emango dira, geografia-informazioko sistemetako arduradun- edo teknikari-lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko.

b) Esperientzia espezifikoa.

Gehienez ere 70 puntu emango dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, Uraren Euskal Agentzian emandako zerbitzuengatik, behar bezala egiaztatzen badira; baremo honi jarraituko zaio:

- 0,292 puntu emango dira, geografia-informazioko sistemetako teknikari-lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko. 0,584 puntu emango dira, deialdi honen aurreko 5 urteetan geografia-informazioko sistemetako teknikari-lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko.

V. eranskina: Isurketa teknikaria

1. Sartzeko titulazioak:

- Ingurumen Zientzietako lizentzia
- Ingeniaritza Kimikoa
- Mendi Ingeniaritza
- Industria Ingeniaritza
- Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritza
- Ingeniaritza Agronomoa
- Kimikako lizentzia
- Geologiako lizentzia
- Biologiako lizentzia
- Meatzeetako Ingeniaritza
- Itsasoaren Zientzietako lizentzia
- Industria-antolamenduko Ingeniaritza
- Industria Ingeniaritza; antolamendu-espezialitatea
- Obra Publikoetako I.T.
- Industriako I.T.
- Basozaintzako I.T.
- Kimikako I.T.
- Nekazaritzako I.T.
- Topografiako I.T.
- Meatzeetako I.T.

2. Lanpostuaren xede orokorra

Atxikita dagoen unitateko arduradunari eginkizunak betetzen laguntzea eta isurketak baimentzeko dagokion arto-bulegoko zeregin teknikoak egitea, arreta berezia jarritz hondakin-uren isurketak ur-masen egoera onarekin bateragarriak izateko baldintzak jartzen direla eta isurketa horien jarraipena eta kontrola egiten dela.

3. Eginkizun orokorrak.

- Eremu honetako espedienteak izapidetzen eta haiei jarraipena egiten laguntzea.
- Eremuko isurketen eta presioen jarraipena egitea.

- Jarduera-esparruko kontratuen betetzen direla zuzentzea eta gainbegiratzea.
- Isurketen arloko ebaluazio-txostenak egitea.
- Isurketen arloko kontsultei erantzutea.
- Isurketen arloko jarduketak kontrolatzea.
- Isurketen arloko jarduketetan aholkuak ematea.
- Isurketen arloko azterlanak egitea.
- Jarduketa-esparruko informazio-sistemak kudeatzea.
- Isurketen arloko espedienteak kudeatzea.

4. Esperientziaren baremazioa

a) Esperientzia orokorra.

Gehenez ere 15 puntu emango dira edozein administrazio publikotan jabari publiko hidraulikora eta lehorretik itsasora egindako isurketen eremuan emandako zerbitzuengatik, oinarri espezifikoaren 5.a) puntuaren arabera, behar bezala egiaztatzen badira; baremo honi jarraituko zaio:

– 0,084 puntu emango dira, jabari publiko hidraulikora eta lehorretik itsasora egindako isurketen baimenen, segimenduaren eta kontrolaren eremuko arduradun- edo teknikari-lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko.

b) Esperientzia espezifikoa.

Gehenez ere 70 puntu emango dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, Uraren Euskal Agentzian emandako zerbitzuengatik, behar bezala egiaztatzen badira; baremo honi jarraituko zaio:

– 0,292 puntu emango dira, isurketa-arduradunaren edo -teknikariaren lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko. 0,584 puntu emango dira, deialdi honen aurreko 5 urteetan isurketa-arduradunaren edo -teknikariaren lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko.

VI. eranskina: Jabari publikoa kudeatzeko teknikaria

1. Sartzeko titulazioak:

- Ingurumen Zientzietako lizentzia
- Ingeniaritza Kimikoa
- Mendi Ingeniaritza
- Industria Ingeniaritza
- Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritza
- Ingeniaritza Agronomoa
- Kimikako lizentzia
- Geologiako lizentzia
- Biologiako lizentzia
- Meatzeetako Ingeniaritza
- Itsasoaren Zientzietako lizentzia
- Industria-antolamenduko Ingeniaritza
- Industria Ingeniaritza; antolamendu-espezialitatea
- Obra publikoetako I.T.
- Industriako I.T.
- Basozaintzako I.T.
- Kimikako I.T.
- Nekazaritzako I.T.
- Topografiako I.T.

2. Lanpostuaren xede orokorra

Atxikita dagoen unitateetako arduradunei eginkizunak betetzen laguntzea, eta jabari publikoaren kudeaketari dagozkion zeregin teknikoak egitea, hala nola ur-aprobetxamenduen emakidak, jabari publiko hidraulikoen baimenak, dagokion babes-eremuetako eta itsas-lehorreko jabari publiko babesteko zortasun-eremuko baimenak, bai eta jabari publiko hidraulikora edo lehorretik itsasora egiten diren isurketak baimentzea, jarraipena egitea eta kontrolatzea ere.

3. Eginkizun orokorrak.

- Dagokion jarduketa-eremuko prozedurak eta irizpideak lantzea, eta horien ezarpena koordinatzea eta gainbegiratzea.
- Jabari publikoaren kudeaketarekin erlazionatutako espedienteak izapidetzea.

- Jabari publikoaren kudeaketaren arloko azterlanak egitea.
- Jabari publikoaren kudeaketarekin erlazionatutako informazioa eta kontsultak kudeatzea.
- Jabari publikoaren kudeaketaren arloko informazio-sistemak diseinatu, ezarri eta hobetzea.
- Zerbitzuaren kalitatearen arloko irizpideak ezartzea.
- Dibulgaziozko prestakuntza kudeatzea.
- Jabari publikoaren kudeaketarekin erlazionatutako kontratuak izapidetzea eta kudeatzea.

4.– Esperientziaren baremazioa

a) Esperientzia orokorra.

Gehenez ere 15 puntu emango dira edozein administrazio publikotan jabari publikoa kudeatzeko eremuan, –ur-aprobetxamenduen emakidak edo jabari publiko hidraulikoko obra-baimenak–, jabari horren babes-eremuetan eta itsasoko eta lehorreko eremuetan edo jabari publiko hidraulikora eta lehorretik itsasora egindako isurketen eremuan emandako zerbitzuengatik, oinarri espezifikoaren 5.a) puntuan ezarritakoaren arabera, behar bezala egiaztatzen badira; baremo honi jarraituko zaio:

- 0,084 puntu emango dira, jabari publikoaren kudeaketaren eremuko arduradun- edo teknikari-lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko.

b) Esperientzia espezifikoa.

Gehenez ere 70 puntu emango dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, Uraren Euskal Agentzian emandako zerbitzuengatik, behar bezala egiaztatzen badira; baremo honi jarraituko zaio:

- 0,292 puntu emango dira, jabari publikoa kudeatzeko teknikari-lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko. 0,584 puntu emango dira, deialdi honen aurreko 5 urteetan jabari publikoa kudeatzeko teknikari-lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko.

VII. eranskina: Komunikazio teknikaria

1. Sartzeko titulazioak:

- Kazetaritzako lizentzia
- Politika- eta Administrazio-zientzietako lizentzia
- Publizitateko eta Harreman Publikoetako lizentzia
- Ikus-entzunezko Komunikazioko lizentzia

2. Lanpostuaren xede orokorra

Komunikazio-jarduerak sustatzea eta egitea, eta harremanak izatea erakundeekin eta komunikabideekin.

3. Eginkizun orokorrak.

- Agentziaren jarduera-eremuko lan-zentroen jarduketak koordinatzea.
- Irizpideak proposatzea, dagokion jarduketa-eremuan.
- Prentsa eta komunikazioaren arloko aholkuak ematea.
- Komunikazioaren arloko planak eta programak kudeatzea.
- WEBeko informazioa editatzea.
- Prentsako eta komunikazioko informazioa kontrolatzea.
- Prentsarekin eta komunikazioarekin lotutako kontsultei erantzutea.
- Prentsaren eta komunikazioaren arloko jarduerak sustatzea.
- Prentsarekin eta komunikazioarekin izan beharreko elkarrizketak eta harremanak kudeatzea.
- Prentsa-txostenak prestatzea.

4. Esperientziaren baremazioa

a) Esperientzia orokorra.

Gehienez ere 15 puntu emango dira edozein administrazio publikotan komunikazioaren eremuan emandako zerbitzuengatik, oinarri espezifikoaren 5.a) puntuan ezarritakoaren arabera, behar bezala egiaztatzen badira; baremo honi jarraituko zaio:

- 0,084 puntu emango dira, komunikazioaren eremuko arduradun- edo teknikari-lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko.

b) Esperientzia espezifikoa.

Gehienez ere 70 puntu emango dira, esperientzia orokorraren baloraziotik berezita eta haren osagarri, Uraren Euskal Agentzian emandako zerbitzuengatik, behar bezala egiaztatzen badira; baremo honi jarraituko zaio:

– 0,292 puntu emango dira, komunikazioaren eremuko arduradun- edo teknikari-lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko. 0,584 puntu emango dira, deialdi honen aurreko 5 urteetan komunikazioaren eremuko arduradun- edo teknikari-lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko.

VIII. eranskina: Lan hidraulikoen eta leheneratze jardueren teknikaria

1. Sartzeko titulazioak:

- Obra publikoetako I.T.
- Mendi Ingeniaritza
- Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritza
- Ingeniaritza Agronomoa

2. Lanpostuaren xede orokorra

URAK sustatutako obra publikoko obra eta proiektuen lanketan eta jarraipenean parte hartzea, eta, hala badagokio, haiek erredakzioa eta exekuzioa zuzentzea, eta obra hidraulikoari buruzko araudia betetzen dela egiaztatzea.

3. Eginkizun orokorrak.

- Lan hidraulikoen eta leheneratze jardueren jarraipenean eta lanketan parte hartzea eta, hala badagokio, haiek zuzentzea.
- Lan hidraulikoen eta leheneratze jardueren proiektuen jarraipenean eta lanketan parte hartzea eta, hala badagokio, haien erredakzioa zuzentzea.
- Lan hidraulikoen eta leheneratzeen proiektuak egitea.
- Lan hidraulikoen eta leheneratzeen proiektuak gainbegiratzea.
- Lan hidraulikoen eta leheneratzeen balorazio-txostenak egitea.
- Lan hidraulikoei eta leheneratzeei buruzko kontsultei erantzutea.
- Lan hidraulikoen eta leheneratzeen inguruko jardueren espedienteak kudeatzea.
- Lan hidraulikoen eta leheneratzeen ebaluazio-txostenak egitea.

4. Esperientziaren baremazioa

a) Esperientzia orokorra.

Gehenez ere 15 puntu emango dira edozein administrazio publikotan lan hidraulikoen eremuan emandako zerbitzuengatik, oinarri espezifikoaren 5.a) puntuan ezarritakoaren arabera, behar bezala egiaztatzen badira; baremo honi jarraituko zaio:

- 0,084 puntu emango dira, lan hidraulikoen eremuko arduradun- edo teknikari-lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko.

b) Esperientzia espezifikoa.

Gehenez ere 70 puntu emango dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, Uraren Euskal Agentzian emandako zerbitzuengatik, behar bezala egiaztatzen badira; baremo honi jarraituko zaio:

- 0,292 puntu emango dira, lan hidraulikoen eta leheneratze jardueren eremuko arduradun- edo teknikari-lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko. 0,584 puntu emango dira, deialdi

honen aurreko 5 urteetan lan hidraulikoen eta leheneratze jardueren teknikari-lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko.

IX. eranskina: Lan baimenen teknikaria

1. Sartzeko titulazioak:

- Industria-antolamenduko Ingeniaritza
- Industria Ingeniaritza; antolamendu-espezialitatea
- Obra publikoetako I.T.
- Ingurumen Zientzietako lizentzia
- Ingeniaritza Kimikoa
- Mendi Ingeniaritza
- Industria Ingeniaritza
- Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniaritza
- Ingeniaritza Agronomoa
- Kimikako lizentzia
- Geologiako lizentzia
- Biologiako lizentzia
- Industriako I.T.
- Meatzeetako Ingeniaritza
- Itsasoaren Zientzietako lizentzia
- Basozaintzako I.T.
- Kimikako I.T.
- Nekazaritzako I.T.
- Topografiako I.T.
- Meatzeetako I.T.

2. Lanpostuaren xede orokorra

Arloko espedienteen izapideak eta jarraipena egiten laguntzea eta eremu geografikoari dagokion ingurunearen gaineko presioen jarraipena egitea. Jabari publiko hidraulikoan eta haren babes-eremuetan edo itsasoko eta lehorreko jabari publikoa babesteko zortasun-eremuan obrak egiteko baimenak bideratu behar dira, eta plangintza xehatuari buruzko txostenak eta horrekin guztiarekin lotutako kontsultei ere erantzun beharko zaie.

3. Eginkizun orokorrak.

- Jarduera-esparruko kontratuen egikaritzea zuzentzea eta gainbegiratzea.

- Obra-baimenen arloko ebaluazio-txostenak egitea.
- Obra-baimenen arloko kontsultei erantzutea.
- Obra-baimenen arloko jarduketak kontrolatzea.
- Obra-baimenen arloko jarduketetan aholkuak ematea.
- Obra-baimenen arloko azterlanak egitea.
- Jarduera-esparruko informazioa eta dokumentazioa kudeatzea.

4.– Esperientziaren baremazioa

a) Esperientzia orokorra.

Gehienez ere 15 puntu emango dira edozein administrazio publikotan jabari publiko hidraulikoan eta haren babes-eremuetan edo itsasoko eta lehorreko jabari publikoa babesteko zortasun-eremuan obrak egiteko baimenen arloan emandako zerbitzuengatik, oinarri espezifikoaren 5.a) puntuan ezarritakoaren arabera, behar bezala egiaztatzen badira; baremo honi jarraituko zaio:

- 0,084 puntu emango dira, jabari publikoaren eta haren babes-eremuen arloko arduradun-edo teknikari-lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko.

b) Esperientzia espezifikoa.

Gehienez ere 70 puntu emango dira, esperientzia orokorraren baloraziotik bereizita eta haren osagarri, Uraren Euskal Agentzian emandako zerbitzuengatik, behar bezala egiaztatzen badira; baremo honi jarraituko zaio:

- 0,292 puntu emango dira, lan baimenen eremuko arduradun- edo teknikari-lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko. 0,584 puntu emango dira, deialdi honen aurreko 5 urteetan lan baimenen eremuko arduradun- edo teknikari-lanpostuetan lan egindako hilabete bakoitzeko.

X. eranskina: Normalizazio eta itzulpeneko teknikaria

1. Sartzeko titulazioak:

- Lizentziak
- Arkitektura
- Goi-mailako ingeniari-tza
- Unibertsitateko diplomak
- Arkitekto teknikoa edo aparejadorea
- Ingeniari-tza Teknikoa

2. Lanpostuaren xede orokorra

